

LITERATURA UNIBERTSALA



FIODOR DOSTOIEVSKI

Krimena eta zigorra

Aroa Uharte Zubillaga

Fiodor Dostoievski

Krimena eta zigorra

Aroa Uharte Zubillaga
Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:
Преступление и наказание
Prestuplenie i nakazanie

1. argitalpena: 2026ko azaroan.

© Azaleko margolanarena: 2026, Alain Urrutia.
© Itzulpenarena: 2026, Aroa Uharte Zubillaga.
© Hitzaurrearena: 2026, Aroa Uharte Zubillaga.
© Argitalpen honena: 2026, EREIN eta IGELA argialetxeak.


Maketazioa: Asier Beltza.
Inprimatzailea: Ulzama S.A.

ISBN: 978-84-1093-113-8
LG: D 918-2026

*Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo alda-
keta egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko
kasuetan salbu.*

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-
laguntza jaso du.*

*Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile,
Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Na-
gusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.*





FIODOR MIKHAILOVITX DOSTOIEVSKI
1821-1881

HITZAURREA

BIZITZA, GARAIA ETA OBRA

Fiodor Mikhailovitx Dostoievski 1821ean jaio zen, Moskun, behar-tsuentzako ospitale batean, aita bertako medikua baitzen. Miseriak eta gaixotasunak bat egiten zuten ospitaleko giroan hazi zen, zazpi senideko familia patriarkal zurrunean. Ama, emakume kultu eta jainkozalea, hamasei urte zituela galdu zuen, eta handik gutxira aita. San Petersburgon ingeniari-ikasketak egin bitartean, literaturaren irakurketan murgildu zen gaztetan, eta berehala hartu zuen idazle izateko erabakia.

Hasi, literatura-itzulpenak eginez hasi zen. 1840ko hamarkadan, itzulpenekin batera, arrakasta koxkorra lortu zuten lan batzuk argitaratu zituen; tartean, *Bihotz ahula*, Jesus Mari Lasak euskarara ekarria, *Bednye liudi* (Behartsuak) eta *Belye notxi* (Gau zuriak). 1849an, ideia sozialistak bultzatzen zituzten zirkulu klandestinoetako batean parte hartzeagatik atxilotu, eta heriotzara kondenatu zuten beste sei lagunekin batera, baina tsarrak apropos geroratutako indultua eman zien azkeneko momentuan, eta, horren ordeztan, lau urteko gatibu-lanetara eta bizi guziko zerbitzu militarreara kondenatu. Exekuzioaren simulakroak zirrararik handia eragin zion, Siberiako gatibualdian pasatutako urteek bezainbat (besteak beste, bere konbikzio politikoetan, Dostoievskik ideia kontserbadoreak izan baitzituen handik aurrera). Espetxeko mediku batek egingutako epilepsia-diagnostikoari esker, Siberian zerbitzu militarrean betiko

gelditzetik libratu zen. Gaztetatik sufritu zituen burmuinaren deskarga neuronal gehiegizko horiek, eta, osasunean eragiten zizkion kalteak kalte, eta mediku nahiz lagunen aholkuari kasurik egin gabe, San Petersburgora itzultzeko eta argitaratzeko baimena lortu bezain pronto ekin zion berriz ere literatur lanari, bai arrakastaz ekin ere (garai horretakoa dugu Josu Zabaletak euskarara ekarritako *Lurpeko ezkutuan idatziak*). Arrakastarekin batera, ordea, oso denbora gutxian nozitu zituen lehenbiziko emaztearen eta anaia kuttunaren heriotzak.

Osasun ahulak, jokoarekiko mendekotasunak, zorrek eta lanak entregatzeko epe estuek ia itotzen zutela jarraitu behar izan zuen idazten. 1865ean hasi zen *Krimena eta zigorra* idazten, baina argia ikusi aurretik hainbat eta hainbat aldaketa jasan zituen hasierako asmo hark (Dostoievskiren idazketa-prozesuan gauza normala zena, bestalde). Hasiera batean, bi nobela motz independentetan garatu behar zituen Marmeladovtarren patua eta Raskolnikovena; gero, bi istorioak batean integraturik zituela eta nobela ia prest zuela, egindakoa sutara bota eta berritik idatzi zuen nobela osoa. 1866. urtean argitaratu zen atalka, *Russki vestnik* (Errusiar mezularia) aldizkarian (eta handik urtebetera liburu formatuan).

Urte hartan bertan, estuasun ekonomikoen mehatxupean sinatutako abusuzko kontratu batengatik egile-eskubideak galtzeko zorian zela, beste lan bat entregatu behar izan zuen, eta hogeita sei egunean idatzi zuen Anton Garikanok euskaratutako *Jokalaria* nobela motza. Hori lortzeko, estreinakoz, takigrafo baten laguntza izan zuen: Anna Grigorievna Snitkina (1846-1918), jarraian Dostoievskiren umeen ama, emazte eta zaintzaile ez ezik, idazlearen takigrafo, zuzentzaile, argitaratzaile, literatur agente eta kudeatzaile ere bihurtu zena.

Krimena eta zigorra nobelarekin batera, gerora «pentateuko gorena» deitutakoa osatu zuten beste lau nobelatzar ere idatzi zituen 60ko eta 70eko hamarkadetan: *Idiot* (Ergela), *Besy* (Deabruak), *Podrostok* (Nera-bea), eta *Bratia Karamazovy* (Karamazov anaiak). Horiez gainera, gogotez, iruzkin kritikoz, eskutitz irekiz eta pasarte literarioz osatutako *Dnevnik pisatelia* (Idazle baten egunerokoa) bere gisako obra literarioa argitaratu zuen 70eko hamarkadan zehar hil arte.

Fiodor Dostoievski 1881eko ilbeltzaren 26an hil zen, San Petersburgon, 60 urte zituela. Hil aurretixe, 1880ko udan, Puxkin poeta nazional handiari egindako monumentuaren inaugurazioan eman zuen hitzaldiaren ondorioz, idazle kontsakratu bihurtu zen errusiar *intelligentsiarentzat*. Herriak ere aspaldi baitzuen gogoko, Dostoievskiren

hileta idazle handiari agur esatera joan zen jendetzak osatutako manifestazio bat izan zen.

KRIMENA ETA ZIGORRA

Aipatu ditugu, dagoeneko, Dostoievskik idazterakoan izan zituen baldintza materialen nondik norakoak. Horiei garaiak eta tokiak moldatutako beste baldintza bat gehitu behar zaie, hots, literaturaren oihartzuna eta zentralitatea errusiar gizartean, Dostoievskiren obrak ulertzeko beharrezkoa baita. Dostoievskik, bere literatur lanetan, gogoeta filosofiko, politiko eta sozialak ematen zituen argitara; izan ere, XIX. mendeko Errusiar Inperioan, zentsuraren presioa zela eta, pentsamendua fikzio literarioaren bitartez garatzeko aukera besterik ez zegoen.

Horiek horrela, *Krimena eta zigorra* kriminalaren ikuspuntutik erakitako nobela poliziakoa baino zerbait gehiago da. Hainbat eta hainbat irakurketa eta interpretazio egiteko bide ematen duen obra bat da.

Izan daiteke bere garaiaren erradiografia sakon bat: 1861eko erreformak ekarritako jopuen askapenaren testuinguruan, feudalismotik kapitalismora emandako jauziak eragin zituen deserrotzeen gaineko gogoeta.

Izan daiteke giza arimaren sakonerak aztertzen dituen nobela psikologiko bat, elkarrizketetan eta barne-bakarrizketetan egindako digresio amaigabeen bitartez dilema moral bat eta salbaziorako bidea argitu nahi dituen.

Izan daiteke ahaztuen erretratu egiazko bat, eta horregatik hain maitatua idazlearen garaiko aurrerazale eta iraultzaileentzat nahiz ondorengoentzat.

Izan daiteke Errusia handiari bidea erakutsi nahian idatzitako panfleto kontrairaultzaile bat, non kristautasun ortodoxoaren bide mistikoa defendatzen den «mendebaldeko arrazionaltasun lehorren» aurrean, Antton Garikanok *Jokalaria*ren aitzinsolasean erabilitako adierazpidea hona ekarrita.

Izan daiteke, Dmitri Merezhkovski (1865-1941) literatura-kritikariak hain modu finean antzeman bezala, nobela formako tragedia bat, ia deskribapenik gabe, paisaiarik gabe eta kontakizunik gabe ere hizketak sortzen eta osatzen baititu pertsonaiak berak eta istorioa: izan ere, Tolstoi-
ren lanetan ikusten dugulako entzuten badugu, Dostoievskiren lanetan entzuten dugulako ikusten dugu.

Izan daiteke mundu berri bat adierazteko asmatutako forma artistiko berri bat, Mikhail Bakhtinek (1895-1975) nobela polifonikoa izendatu zuena: giza kontzientzia pentsalaria eta inguratzen duen egunero-kotasun dialogikoa errepresentatzeko lehenbiziko saiakera benetan artistikoa.

Izan daiteke, halaber, emakumeek jasandako zapalkuntzek ardaizten duten nobela bat, agerian jartzen baitizkigu alargun baten miseriak, tratu txarrak, prostituzioa, sexu-abusuak, estigma sozialak, biziraupenerako ezkondu beharraren uztarri zitala... Eta hori dena bizitzari eusten dioten emakumezko pertsonaia indartsuen bitartez, gizonezko pertsonaia «izan ez daitekeena» eta «galdetu ezin dena» galdetuz kontu ustez unibertsal eta abstraktuetan galduta dabilzan bitartean...

Eta izan daiteke, baita ere, justiziaren eta injustiziaren etiketa moralak astintzen dituen dokumentu iraunkor bat; izan ere, nobela idatzi eta 160 urtera, badirudi berriz ere Raskolnikov ari zaigula galdezka: «(...) zergatik da modu errespetagarriagoa behar den bezalako setio bat egin eta jendea bonbekin garbitzea?».

Egin dezala norberak bere irakurketa. Aukera bada.

ITZULTZAILEAREN NEKEAK

Andreu Nin (1892-1937) errusiar literaturaren itzultzaile eta politikari iraultzaile katalanak Dostoievskiren estiloa «traketsa, urduria eta hautsia» zela esan zuen 1929an zuzenean errusieratik katalanera egindako itzulpenean, eta estilo hori euskarara ekartzea erronka izan da; bereziki, eleberriko ahots bakoitzaren estilo-berezitasunak mantentzea, alegia, polifonia hori eta hitzaren bidezko pertsonaien gorpuztea entzungarri egitea euskal irakurlearentzat. Edozein hizkuntzak oso bereak izaten dituen adierazpideak itzultzeko buruhausteei, gainera, Dostoievskik berak asmatzen zituen hainbat termino itzultzeko lanak gehitu behar zaizkio.

Itzultzeko zailtasun horiek nola edo hala gainditu izanen ditugulako esperantzan, ernegagarria izan daitekeen izen errusiarren nahas-mahasa argitzeko, nobelaren aurretik dakargun izenei buruzko azalpena eta liburuaren bukaeran dagoen izen-zerrenda gainbegiratzea gomendatzen diogu irakurleari, polifonia honetako ahotsez jabetzeko lagungarri izanen zaiolakoan.

Eskerrik asko itzulpenaren prozesu guzian ondo-ondoan izan ditudanei. Aspaldi, ekialdez harantzagoko txoko batean, lehergai baten gisan *Crimen y castigo* bat eskura eman zidan lagunari. Dostoievskiren igarkizunak asmatzen uneoro lagun izan dudan Julia Kaukhovari. Amaia Apalauza betiereko kontseilari linguistiko eta izpiritualari. Ez dakizkidan hizkuntzekin lagundu didaten Lander Majuelo, Itziar Ultzurrin eta Sonia Kolarzeki. Ahal bezain stakhanovista izateko aholkatu zidan Miquel Cabali, laguntza prestuarengatik eta, batez ere, bere *Crim i càstig* itzulpen bikainarengatik. Xabier Olarrari, begi zorrotzez eta koloretako boligrafoak eskuan egindako irakurketarengatik. Leire Ziluagari, zalantzak eta beldurrak uxatu eta indarra emateagatik. Azken orrazketarekin eta edizio-lanekin itzulpenari forma txukun hau eman dion Inazio Mujikari.

Aroa Uharte Zubillaga

PERTSONA-IZENEN INGURUKOAK

Errusiar literaturan topatzen ditugun pertsonaien izenen malgutasun eta aberastasunak buruhaustek ekarri ahal dizkio euskal irakurleari; izan ere, izen arrotzak buruan hartzeak dakarren zailtasunaz gain, badago izendatzeko sistema hierarkizatu eta, aldi berean, sortzaile bat.

Errusiarrek hiru izen izan ohi dituzte: izena, patronimikoa eta abizena. Adibidez, Rodion Romanovitx Raskolnikov edo Sofia Semionovna Marmeladova. Familia-izen edo abizena gehienetan aitarengandik jasotzen da, nahiz amarena ere har daitekeen (aitarik ez bada edo familiak hala erabakita). Abizen horrek forma maskulinoa edo femeninoa izan dezake: Raskolnikov/Raskolnikova, Marmeladov/Marmeladova. Gainera, tradizionalki, emakumeek senarraren abizena hartzen zuten esposatutakoan.

Euskaldunari ezagun zaizkion izen-abizenek gain, errusiar bakoitzak patronimikoa ere badu, alegia, aitaren izenetik eratorritako nolabaiteko bigarren izena, eta horrek ere forma maskulino edo femeninoa har dezake: Rodion Romanovitx / Advotia Romanovna (Roman izeneko aitaren seme-alabak).

Errusieraz, aditzera eman nahi den formaltasunaren edo gertutasunaren arabera, pertsona batengana zuzentzeko hiru modu daude. Errespetuzko testuinguruetan, izena eta patronimikoa erabiltzea nahitaezkoa

da (Fiodor Mikhailovitx, Rodion Romanovitx). Errespetua mantendu bai, baina konfiantza puntu bat ere baldin badago, patronimikoa laburtu ohi da ahozkoan (Fiodor Mikhailitx, Rodion Romanytx).

Norbait beste bati izen hutsez zuzentzen bazaio, esan nahi du estatus-maila goragoko batekoa dela, edo adinez nagusiagoa (arau sozial hori gaur egun aldatzen ari bada ere, XIX. mendeko literaturan zorrotz betetzen da). Aldiz, familia- edo lagun-giroan, izenak hamaika forma txikigarri har ditzake, eta, askotan, gainera, jatorrizkoarekin antz handirik ez dutenak (halaxe gertatzen da protagonistaren arrebarekin, zeinari, Advotia izena duen arren, gehienetan Dunia edo Dunetxka deitzen baitiote). Beraz, Fiodor Mikhailovitx Dostoievskik askotan aditu izanen zituen (edo ez) Fiodorka, Fedia, Fedka, Fedenka, Fedusia, Fediukha, Fediaika, Fediania, Fediaxa edo gisako izen txikigarri maitekorrak.

Dostoievskik berak ere izendatzeko aukera guzi horiek darabiltza, nola ez, modu adierazgarrian gainera. Eta ez bakarrik pertsonaien ahotan; izan ere, narratzaileak modu batera edo bestera izendatzen ditu pertsonaiak kontakizunean: batzuk abizen hutsez bakarrik aipatzen dira tes-tuan, eta beste batzuk izen eta patronimikoz besterik ez ditugu ezagutzen.

Hori nahikoa ez, eta Nikolai Gogolen (1809-1852) tradizio satirikoari jarraituz, Iker Sancho irakasle eta itzultzaileak «izen hiltun» terminoarekin itzulitako esanahidun izen eta abizenak ere badarabiltza Dostoievskik, alegia, ideia, kontzeptu edo ezaugarri baten oihartzuna daramaten izendapenak.

Liburuaren bukaeran ipini dugu zerrenda bat, pertsonaia nagusien izen osoak eta haiengana zuzentzeko erabiltzen diren txikigarriak zehazten dituenak, izenak errusieraz izan lezakeen oihartzunaren azalpenarekin batera. Hara jo dezake irakurleak zalantzak argitzeko.

Aroa Uharte Zubillaga

Fiodor Dostoievski

Krimena eta zigorra

LEHEN ATALA

I

Uztailaren hasieran, sekulako beroa egiten zuela, iluntze aldera, mutil gazte bat S* zeharkalean berralokatua zuen gela-zulotik kalera atera, eta, pixkanaka, erabaki ezinean bezala, K* zubi aldera abiatu zen.

Eskaileran, etxekoandreari itzuri egitea lortu zuen. Bost pisuko etxe altu baten teilatupean bertan zegoen gela-zuloa, eta gehiago zirudien armairu bat bizileku bat baino. Gela-zuloa eltzekoarekin eta zerbitzuarekin batera alokatua zuen, eta etxekoandrea azpiko solairuan bizi zen, aparteko etxebizitza batean. Haren sukaldeko atea eskaileretara alde alde irekia egoten zen ia beti, eta sukalde aurretik pasatu behar izaten zuen berak kalera ateratzen zen aldiro, beste erremediorik gabe. Eta, aldiro, pasatzen zelarik, halako sentipen gaixo eta izu bat sumatzen zuen, zeinak kopetilundu eta lotsarazten baitzuen. Etxekoandrearekin zorrez itoa zegoen, eta beldurra zion harekin topatzeari.

Berez ez zen hain koldar eta txepela; kontrakoa eta guzi. Baina bazen denbora bat hipokondriaren gisako tentsio-egoera suminkor batean aurkitzen zela. Hainbestearino barneratu zen bere baitan eta halako moduz bakartu zen denengandik, beldurra baitzion ez bakarrik etxekoandrearekin topatzeari, baizik eta edozeinekin. Txirotasunak abailduta zeukan, baina, azkenaldian, estuasun horiek ere ez zuten larritzen. Oso-tara bazter utzita zeuzkan premiazko beharrak, eta arduratu ere ez zuen

arduratu nahi halako kontuez. Izatez, etxekoandreak ez zuen batere izutzen, nahiz beraren kontrako azpikeriatan zebilela jakin. Baina eskaile-retan gelditu, eta piperrik ere inporta ez zitzaizkion huskeria arrunt horien guzien inguruko berriketa ergelen bat entzun beharra, ordainketei buruzko kalakak, mehatxuak, kexak, eta, gainetik, itzulinguruka ibili beharra, barkamen eske, gezurretan... Ez horixe, hobe eskailerak katu baten gisan zizt igaro eta hanka egin, inork ez ikusteko.

Kontuak kontu, zordun zenarekin topatzeak orduko hartan eragin zion beldurrak harri eta zur utzi zuen kalera ateratakoan.

«Asmo handiak izaki, baina, aldi berean, nola beldurtzen naizen txikieriekin! —pentsatu zuen irribarre arraro bat eginez—. Um... Bai... Pertsonak bere esku zeukak dena, baina muturren aurrean alferrik gal dadin uzten dik beti, zergatik eta koldarkeria hutsagatik... Axioma bat duk hori... Zera jakin nahi nikek: jendea zerk beldurtzen du gehien-gehiena? Pauso berri batek, zerbait berria esateak beldurtzen dik gehienbat jendea... Baina tira, berriketa gehiegi zerabileat. Horregatik ez diat deus egiten, berriketan aritzeagatik. Beno, agian honela ere bai: deus egiten ez dudalako aritzen nauk berriketan. Azkeneko hilabete honetan trebatu nauk berriketa-kontuan, zokoan etzana egonik eguna joan eta eguna etorri burua zerean nuela... txakur-ametsetan. Zertara noa ba orain? Akaso gai naiz *hori* egiteko? Akaso kontu serioa da *hori*? Ez duk batere serioa. Fantasia bat besterik ez, neure buruaren entretenigarri; josteta hutsa! Bai, horixe bera, josteta hutsa!».

Bero zakarra zen kalean, eta gainera sargoria, jendetza, karea bazter guzietan, aldarmioak, adreiluak, hautsa eta udako kirats berezi hori, datxa bat alokatzerik ez duen petersburgoar orok hain ezaguna duena. Horrek guziak ikaraldi desatsegin bat eragin zion bestela ere nerbioetatik jota zegoen gazteari. Batetik, hiriaren parte hartan bereziki mordoka pilatzen ziren tabernen kirats jasanezinak eta, bestetik, asteguna izan arren behin eta berriz topatzen zituen mozkorrek azken ukitua ematen zioten koa-dro okaztagarri eta triste hari. Higuin ezinago sakon baten sentsazioa islatu zen momentu batez mutil gaztearen aurpegiera finean. Bide batez, planta ederra zuen, apartekoa: begi ilun zoragarriak eta ile gaztainakara zituena, eta ohi baino altuagoa zen, mehea eta lerdena. Segituan, ordea, halako hausnar sakon batean barneratuta gelditu zen, edo are, hobeki esanda, bere baitan bilduta, nolabait ere, eta hor abiatu zen, jadanik ingurukoaz ohartu gabe eta jaramonik egiteko ere inongo gogorik gabe. Noizik eta behin baino ez zuen xuxurlatzen zer edo zer bere kolkorako, bere buruari aitortu berri zion bakarriketarako ohitura hura zela medio.

Momentu horietan, ohartu ere ohartzen zen ideiak tarteka nahastu egiten zitzaizkiola eta oso ahul zegoela: bigarren eguna zuen ia deus ere jaten ez zuela.

Hain baldar jantzita zegoen, ezen, beste edonor, baita gaizki janztera ohitutako bat ere, lotsatu egingen baitzen itxura zarpail horrekin egun argitan kalera ateratzeaz. Dena dela, zaila zen inor janzkerarengatik harritzea gisa hartako auzo batean. Sennaia plazaren inguruan zegoen, erruz zeuden han hala-holako tokiak, eta batik bat gremioetako langile eta artisauak bizi ziren Petersburgoko erdiguneko kale eta kalekha haietan, gainezka eginez. Hortaz, halako jende-modua agertzen zen noizean behinka panorama orokorrean zirtaka, arraroa baitzatekeen figura xeblebreko edonor topaturik ere harridura sentitzea. Baina inoiz heldugabe izatetik ere bazetorkion sentiberatasun guzia gorabehera, kalean piltzar haiekin ibiltzea zen lotsa gutxien eragiten ziona, hainbestekoa baitzen gaztearen ari-man ordurako metatua zegoen amorruzko mespretxua. Beste kontu bat litzateke bestela ere topatu nahi izaten ez zituen ezagunekin edo kide ohiekin topatzea... Hala eta guziz ere, momentu hartan kalean zehar zaldi erraldoi batek tiratutako gurdi erraldoi batean auskalo zergatik eta auskalo nora zeramaten mozkor batek bat-batean oihuka bota zionean, pasaeran: «Hepa, aizak, kapelagile alemana!», eta zintzurra urratu beharrean marruka hasi zitzaionean eskuarekin seinalatzen, mutilak, kolpez geldituta, kapelari heldu zion dardarizo batean. Kapela altua eta borobila zen, Zimmermann etxekoa,¹ baina dagoeneko osotara higitua zegoen, koloregabeta, dena zuloz eta zikinez josia, hegalik gabe, eta alde batera okertua, angelurik itsusia marraztuz. Ez zuen lotsak hartu, ordea, baizik eta zeharo bestelako sentimendu batek, izutik gertuagoko batek.

—Banekian ba nik! —murmuratu zuen durduzaturik—, pentsatzen nian ba! Hauxe duk okerren-okerrera! Horratx, edozein astakeriak, edozein txikikeria txepelek pikutara bidal zezakek plan guzia! Kapela nabarmenegia duk, bai... Irrigarria duk, horregatik nabarmena... Nire zarpail hauekin derrigor eraman behar diat txapel bat, edozein txapel zahar arraio dela ere, baina ez zera itxuragabe hau. Inork ez dik holakorik eramaten, urrutitik antzeman eta gogoratzeko modukoa duk... Hortxe zegok koska, ondoren gogoratzeko modukoa dela, eta to, aztarna. Batere nabarmendu gabe pasatu beharra zegok ahal den neurrian... Txikikerietan zegok koska, txikikerietan! Txikikeria horiek hondatzen ditek-eta dena beti...

¹ Zimmermann fabrika eta kapela-denda ezaguna zen Petersburgon (Itzultzailearen oharra, hemendik aurrerako guziak bezala).

Ez zuen asko ibili beharrik; bere etxeko ataritik hasita zenbat pauso ziren ere bazekien: zehazki, zazpiehun eta hogeita hamar. Behin, ameskerietara oso emana zebilen batean, kontatu egin zituen. Garai hartan, berak ere ez zuen sinesten oraindik amets haietan, eta zerien ausarkeria izugarri bezain tentagarriarekin bere burua ziztatu besterik ez zuen egin. Orain, berriz, hilabetea pasatu zelarik, jadanik ikuskera mudatzen hasia zitzaion, eta, indar eta erabakitasun propiorik ezaren gaineko bakarrikzeta burlari guziak gorabehera, amets «izugarri» hura dagoeneko eginkizun gisa hartzera ohitu zen nolabait, gogoz bestera ia, nahiz eta bere buruarengan sinetsi gabe segitu. Areago, oraingoan eginkizunerako *proba* bat egitera zihoan, eta, pausoak eman ahala, asaldura handitzen eta handitzen ari zitzaion.

Bihotza ukabil batean eta kirioak dantzan, etxe izugarri handi batera hurbildu zen, zeinak ematen baitzuen alde batetik ubide aldera eta bestetik *a kalera. Etxebizitza txikiz osatutako eraikin bat zen, eta gisa guzietako eskulangileak bizi ziren han: jostunak, sarrailagileak, sukaldariak, aleman askotarikoak, bizimodua ateratzen zuten neskatxa galduak, kategoria baxuko funtzionarioak, etab. Etxearen bi sarrera eta patioetan, jendea etengabe zebilen sartu-irtenean. Hiruzpalau atezainek lan egiten zuten han. Mutil gaztea asko poztu zen haietako bat bera ere ez topatzeaz, eta ziztu batean igaro zen, inork ikusia izan gabe, sarreratik eskuinaldeko eskailerara. Zerbitzuko eskailera zen, iluna eta estua, baina hori dena jadanik ikusia eta ikasia zuen, eta gustatu ere gustatzen zitzaion giro hori guzia: iluntasun hartan, begiluzeren bat topatuta ere, arriskurik ez. «Oraingo honetan hainbeste kikiltzen banaiz, nola ote nengoke ba, inondik edo inola *zera* hori benetan aurrera eramateko egokieran suertatuko banintz?», pentsatu zuen nahi gabe hirugarren pisuraino ailegatzean. Han, etxebizitza bateko altzariak ateratzen zamaketari-lanetan ari ziren soldadu erretiratu batzuek oztopatu zioten bidea. Aurrez bazekien bizitza hartan funtzionario aleman bat bizi zela familiarekin. «Dirudienez, aleman hau alde egitera zoak, eta, itxuraz, hirugarren pisuan, eskailera honetan eta eskailburu honetan, amona zaharra bakarrik biziko duk boladatxo batez. Ez duk txarra... badaezpada ere...», pentsatu zuen berriro, eta zaharraren etxeko atean jo zuen. Txilinak hots ahula atera zuen, kobrez ez baizik eta latorriz egina balego bezala. Halako etxeetako etxebizitza txikietan, txilinak ia beti gisa horretakoak izaten dira. Tirrinta ordurako ahaztua izaki, iduri zuen hots berezi hark zerbait gogorarazi eta argitasun osoz ikusarazi ziola kolpetik orain... Inarrosaldi batek zeharkatu zuen: nerbioak makalegi zeuzkan horrezkero. Handik pixka batera,

atean zirriztu mehar bat ireki zen: han bizi zenak ageriko mesfidantzaz behatzen zion bisitariari zirrikitan zehar, eta, iluntasunean, bi begitxoren dirdira besterik ez zen ikusten. Eskailburuan jendetza bazela ikusita, ordea, adorea hartu eta atea alderik alde zabaldu zuen. Atalasea zeharkatuta atondo ilun batera sartu zen gaztea; holtz batek separatuta, sukalde ñimiño bat zegoen atzean. Zaharra hitzik esan gabe zegoen mutilaren aurrean zutik, eta jakin-minez begiratzen zion. Amona zahar txiki eta ihar bat zen, hirurogei bat urtekoa. Asmo gaiztoko begitxo erneak zituen, sudur txiki zorrotza, eta burua estali gabea zeraman. Pixka bat urdintzen hasitako ile horail argia ukenduz ongi igurtzia zeukan. Oilasko-hanka baten irudiko lepo fin eta luzea flanelazko pildaren batekin bildua zuen, eta, soinean, bero sapa egin arren, zeharo gastatu eta histutako larruzko zamar handiegi bat zeukan zintzilik. Eztulka eta zinkurinka ari zen gelditu gabe. Nonbait, gazteak begirada arraroarekin begiratuko zion, begietan lehengo mesfidantza bera agertu baitzitzaion berriz ere kolpetik.

—Raskolnikov, ikaslea, duela hilabete izan nintzen hemen —esan zuen presaka hortz artean mutil gazteak, eta, erreberentzia sotil bat eginenez, atseginagoa izan behar zuela gogoratu zuen.

—Akordatzen naiz, gazte, ederki akordatzen naiz hemen izan zinela —esan zuen amona zaharrak hitz guziak ongi ahoskatuz, begi miatzaileak mutilaren aurpegitik baztertu gabe.

—Zera, ba... Berriz ere hemen nauzu, kontu berarekin... —jarraitu zuen Raskolnikovek, zertxobait nahastuta eta zaharraren mesfidantzarekin harriturik.

«Dena dela, akaso horrelakoa izan duk beti, eta ni aldi hartan ohartu ez», pentsatu zuen atsekabeturik.

Zaharra isilik gelditu zen pixka batean, hausnarrean balego bezala; ondoren, alde batera baztertu, eta, gelarako atea sinalatu eta bisitariari sartzen uzten zion bitartean, esan zuen:

—Aurrera, gazte.

Mutila horiz papereztatutako gela txiki batera sartu zen. Geranioak eta muselinazko errezelak zeuzkan leihoetan, eta momentu horretan oso argitsu zegoen, etzaten ari zen eguzkiak jotzen baitzuen. «Nonbait, *orduan* ere horrelaxe joko dik eguzkiak!», pasatu zitzaion burutik Raskolnikovi ezustean bezala, eta azkar batean zabaldu zuen begirada gela osora, ahal zen neurrian kokaguneak burutan hartu eta gogoratzeko. Gelan, ordea, ez zegoen deus berezirik. Altzariak, denak ere oso zaharrak eta zur horiz eginak, hauexek: sofa bat zurezko bizkarralde kurbatu handi batekin, forma obalatuko mahai borobil bat sofaren parean, apain-mahaia

ispilu eta guzi leiho artean kokatuta, aulki batzuk paretaren kontra eta neskatila aleman batzuk txoriak eskuetan irudikatzen zituzten bizpahiru koadro eskas marko horiekin. Kito altzariak, horiexek ziren denak. Izkina batean, ikono txikiaren parean, lanparatxo batek egiten zuen argi. Garbi-garbi zegoen dena: argizariz ongi igurtziak zeuden bai altzariak eta bai lurrea, dena dizdizka. «Lizavetaren lana», pentsatu zuen mutilak. Ez zegoen hauts izpirik ere aurkitzerik etxebizitza osoan. «Alargun zahar eta gaiztoen etxeetako garbitasuna, inondik ere», jarraitu zuen bere baitan Ras-kolnikovek, eta zeharkako begiratu bat eman zion perkalezko gortinak estalitako atearen atzean zegoen bigarren gela nimitsoari, jakin-minez. Zaharraren ohea eta komoda zeuden bertan, eta oraindik so bat ere egin gabea zen hara. Etxeak bi gela horiek besterik ez zeukan.

—Zer behar duzu? —bota zuen lehor amona zaharrak gelara sartzean, eta berriz ere mutilaren parean jarri zen, aurpegira zuzen begiratzeko.

—Gauza bat ekarri dut bahituran uzteko, hemen duzu! —Eta poltsikotik zilarrezko erloju zahar arrunt bat atera zuen. Azpiko aldean, lurglobo bat zeukan marraztuta. Katea altzairuzkoa zuen.

—Aurreko bahiaren epea ere amaitu da, ordea. Herenegun konplitu zen hilabetea.

—Beste hilabete baten interesak ordainduko dizkizut; izan pazientzia pixka bat.

—Nire borondate onaren esku dago hori, gazte: pazientzia izan edo zure prenda hura oraintxe bertan saldu.

—Eta erloju honen truk zenbat litzateke, Aliona Ivanovna?

—Zirtzilkeriekin etortzen zara, lagun maite hori, zerorrek atera kontuak, ez du deus balio. Aurrekoan billetetxo pare eman nizun eraztunarengatik, baina bitxitegian errublo eta erdian eros liteke berri-berria, hura bezalakoxea.

—Emazkidazu lau errublo; errekuuperatuko dut, aitarena baita. Aurki jasoko dut dirua.

—Errublo eta erdi eta interesak aurrez, gustu baduzu.

—Errublo eta erdi? —oihukatu zuen mutil gazteak.

—Zerorrek nahi bezala. —Eta zaharrak bueltan luzatu zion erlojua.

Mutilak erlojua hartu zuen supituan alde egiteko gogoz, hain baitzegoen haserre. Baina segituan aldatu zen iritziz, gogoratu baitzuen ez zuela beste inora joaterik, eta gainera beste kontu baterako ere etorria zela.

—Tira ba! —esan zuen zakarki.

Zaharrak poltsikoan sartu zuen eskua, giltza bila, eta beste gelara joan zen gortinen atzetik. Mutil gazteak, gela erdian bakarrik geldituta, belarria

paratu zuen, egoera irudikatu nahian. Komoda nola irekitzen zuen entzun zen. «Goiko tiradera, dirudienez», ari zen bere irudimenean. «Giltzak eskuineko poltsikoan zeramatzak nonbait... Denak sorta berean, altzairuzko uztai batean... Eta bazegok giltza bat mutur koskadunarekin beste guziak baino hiru aldiz handiagoa, eta ez duk komodakoa, noski... Nonbait ere, beste kutxatila edo kutxaren bat ere bazegok... Hori bai interesgarria. Kutxek halako giltzak izaten ditiztek beti... Baina, dena dela, bai gauzaren zitala hau dena...».

Zaharra bueltan zen.

—Honatx, gazte: errubloagatik hilean hamar kopek izaki, errublo eta erdirengatik dira hamabost kopek, hilabetekoa aurreratzeke. Eta aurretik utzitako bi errubloengatik beste hogeitaz kopek aurreratzea dagokizu, kalkulu berari segituz. Osotara, hortaz, hogeita hamabost. Beraz, orainxe zure erlojuarengatik jaso beharrekoa, errublo bat eta hamabost kopek. Hementxe duzu.

—Nola ba! Orain zer, eta errubloa eta hamabost kopek!

—Halaxe da, jauna.

Sesioan hasi gabe, mutilak dirua jaso zuen. Alde egiteko presarik ez, zaharrari begira zegoen, oraindik ere zerbait esan edo egin nahiko balu bezala, baina berak ere ez jakinki, zer zen zehazki...

—Aliona Ivanovna, akaso, egunen batean, beste prenda bat ere ekarriko dizut... zilarrezkoa... ona... zigarro-kaxa bat... lagun batengandik bueltan jasotakoan...

Nahasirik baitzegoen, isildu egin zen.

—Tira, hitz eginen dugu ba orduan, gazte.

—Adio beraz... Aizu, eta etxean bakarrik egoten al zara beti? Ahizpa ez al duzu hemen izaten? —galdetu zuen ahalik eta freskotasunik handienarekin, atondora zihoan bitartean.

—Zer behar duzu ba harengandik, gazte?

—Ez, deus berezirik ez. Besterik gabe galdetu dut. Zeren zu, orain... Adio, Aliona Ivanovna!

Raskolnikov zeharo nahastuta atera zen. Durduzadura handitzen eta handitzen ari zitzaion. Eskaileretan behera zihoala, gelditu ere gelditu zen zenbait aldiz, bat-batean zer edo zergatik harri egina bezala. Eta, azkenean, jadanik kalean zela, zintzurra urratu beharrean hasi zen:

—Ene bada! Bai gauza itsusia hau dena! Eta posible ote, posible ote nik... Ez, ez, tontakeria bat duk, kirtenkeria hutsa! —gehitu zuen erabakitasunez—. Baina nola da posible neure burutik halako izugarrikeria bat pasatu izana? A zer zerrikeriatarako gai den nire bihotz hau, horratik!

Horixe eta bera: zerrikeria, nazkagarrikeria, gauza makurra, makurra...! Eta ni, hilabete osoan...

Baina ezin zuen bere aztoramena adierazi, ez hitzez ez garrasiz. Amona zaharrarenera zihoala jadanik bihotza estutzen eta inarrosten hasia zitzaion higuin amaigabe hura halako neurrian hazi zen eta hain garden azaleratzen zitzaion orain, ez baitzekien nola libratu belztura hartatik. Mozkorturik bezala zihoan espaloian aurrera, oinezkoen ohartu gabe eta haiekin talka eginez, eta hurrengo kalean zela etorri zen bere onera. Ingurura begiratuta, ohartu zen taberna baten ondoan zegoela, zeina lurpean baitzegoen, eskailera batetik espaloian behera joanda. Justu momentu hartan, bi mozkor atera ziren atea zeharkatuta, eta kaleraino igo ziren, elkarri lagunduz eta birao eginez. Raskolnikovek istantean jo zuen behera, askorik pentsatu gabe. Taberna batean sekula sartu gabea zen, baina orain burua jirabiraka zuen eta egarriak amorratzen zegoen, kiskali beharrean. Garagardo hotz bat edateko gogoa sartu zitzaion, are gehiago ohartu zelarik gosearena izan zitekeela derrepenteko ahultasun hura. Zoko ilun eta zikin bateko mahaitxo zoldatsu batera eseri zen; garagardoa eskatu zuen, eta bai irrikaz hustu ere lehenbiziko edalontzia. Berehalako arindua hartu zuen, eta gogoa ere argitu zitzaion. «Hau guzia ton-takeria galanta duk», zioen esperantzaz, «eta ez nian zertan aztoratu! Pattalaldi fisiko bat, besterik ez! Baso bete garagardo, ogi zahar puska bat, eta, hara: laster batean adimena bizkortua, gogoa argitua eta asmoak indartuak! Puf!, hau duk hau zozokeria!». Erdeinuzko tu-palard hori gorabehera, begitarte alaia zuen jadanik, bat-batean garai latz bat atzean utzi izan balu bezala, eta lagunkiro begiratu zien ingurukoei. Alabaina, momentu hartan bertan ere susmo lauso bat zebilkion: dena alderdirik onenetik ikusteko joera hura ere gaizbera zela, alegia.

Ordu hartan jende gutxi gelditzen zen tabernan. Eskaileran topatutako bi mozkorren atzetik kuadrilla oso bat atera zen kolpean, bost bat lagun neskaxa batekin eta soinuarekin. Haiek joandakoan, erdi hutsik gelditu zen tokia, bare-bare. Gelditzen zirenak, hauexek: gizon bat eserita, garagardoa eskuan, muturra berotuta baina gehiegi ere gabe, burges txikia itxuraz; haren adiskidea, tratulari-jaka batez jantzitako gizon potolo erraldoi eta bizarzuri bat, zeina lozorroan baitzegoen bankuan tota egina, eta, noizbehinka, erdi lotan bezala, kriskitinka hasten baitzen derrepentean besoak zabalduta, ipurdia altxatu gabe soinaren goiko partearekin saltoka-saltoka, eta lerdokeriak kanta-marmariatzen, bertsoak oroitzeko eginahalak eginez:

*Urte oso batez andrea gorteatzen,
uuurte oso batez andrea gorteatzeen...*

Edo, kolpez esnatuta, berriz ere:

*Podiatxevski kalean,
maite zar bat bazen han...*

Inork ez zuen, ordea, haren zorionarekin bat egiten. Adiskide isilak etsaitasunez eta guzi begiratzen zien lagunaren ukaldiei, ezin sine-tsita bezala. Bazen han beste pertsona bat ere, itxuragatik funtzionario ohi bat-edo lirudikeena. Aparte eserita zegoen, bere pitxerrarekin, tarteka zurrupadatxoak eginez eta ingurura begira. Hura ere zertxobait aztortuta zegoela zirudien.

AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea</i>	7
<i>Pertsona-izenen ingurukoak</i>	13
KRIMENA ETA ZIGORRA	15
Lehen atala	17
Bigarren atala	107
Hirugarren atala	217
Laugarren atala	305
Bosgarren atala	391
Seigarren atala	473
Epilogo	573
<i>Pertsonaia nagusien izen osoak eta txikigarriak</i>	593